



DEIALDIA, IKASTETXEETAKO ZERBITZUKO BURUAREN 1 LANPOSTU LEKUALDATZE-LEHIAKETA BEREZI BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA.

DEIALDIA BETE GABE UZTEA

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau onetsi du 2025eko abuztuaren 26an:

Bat etorrita Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrari atxikita dagoen Ikastetxeetako zerbitzuko buruaren lanpostu bat lekualdatze-lehiaketa berezi bidez betetzeko deialdiaren bosgarren oinarriarekin, zeina Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak 2025eko ekainaren 26an emandako ebazpenaren bidez onetsi eta 2025eko 145. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 21ekoan, argitaratu baitzen, ez denez izangairik aurkeztu eskaerak aurkezteko epearen barruan, honako hau EBATZI DUT:

1.- Deialdia bete gabe deklaratzeari.

2.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an.-Giza Baliabideetako Alorreko jarduneko zuzendaria, Aitor Navarro Aristorena jauna.